ehbildu

Getxo

2025eko otsaila

# Zein izango da hurrengoa?

## Seguimos perdiendo patrimonio histórico




**Muxikebarrin kudeaketa eskasa**
Dejadez municipal en Muxikebarri

**Getxo hobetzeko 50 proposamen**
Presupuestos municipales 2025

**Kezka Antiguo Golf inguruan**
Preocupación por el túnel subfluvial

# Irurak Bat, zerrenda luze baten azken adibidea

Getxon ondare historikoaren eraispenak ez du etenik. Azken urteetan hamaika dira gure herrian eraitsi diren baserri eta eraikin historikoak, Udalaren baimenarekin. Eusko Jaurlaritzak berak egoera hau salatzen du txosten batean, eta Udalari esaten dio halako eraispenik ez onartzeko HAPO berrian. Zoritxarrez, EAJ-PP-PSE hirukoak onartu duen planak ildo beretik jarraituko du, espekulazioa lehenesten duelako beste ezerren gainetik.




Azken adibidea Irurak Bat jauregitxoaren kasua izan da: eraikina bere osotasunean bota zuten, horretarako baimenik ez zuten arren. Eta, gainera, kontuan hartu behar dugu EAJ-ko zinegotzi bi kooperatibistak direla.
Udal Gobernuak, gertatutakoa azaldu beharrean, gardentasuna erakutsi eta zalantzak argitu barik jarraitzen du. Egoera honen aurrean, EH Bilduk fiskaltzara jotzea erabaki du, legez kontrakorik egon ote den ikertzeko. Informatzen jarraituko dugu.

## Acudimos a la fiscalía en el caso de Irurak Bat

Lo seguimos denunciando: en Getxo estamos perdiendo patrimonio histórico, con el derribo de baserris y edificios arquitectónicamente singulares. Hasta el Gobierno Vasco alerta en un informe que el Ayuntamiento debería proteger mejor el patrimonio y no permitir más derribos de este tipo. Pero en Getxo, al menos de momento, todo vale para favorecer la especulación y las viviendas de lujo. El nuevo PGOU, aprobado por PNV, PP y PSE, sigue la misma línea, quitando incluso la protección a baserris históricos e impulsando expropiaciones.
El último ejemplo ha sido el del palacete Irurak Bat, derribado en su totalidad a pesar de que no contaban con permiso para ello. Y debemos tener en cuenta, además, que dos concejales del PNV son cooperativistas.




El Equipo de Gobierno, lejos de aclarar lo sucedido, sigue sin actuar con transparencia, por lo que desde EH Bildu hemos decidido acudir a la fiscalía, para que determine si se ha incurrido en ilícito-penal. Seguiremos informando.



# Muxikebarriko jatetxea, hutsik

Bost urte baino gehiago igaro dira Muxikebarri ireki zenetik eta oraindik ere gabezia eta hutsune ugari antzematen ditugu. Bigarren solairuan, esate baterako, ostalaritza zerbitzurako lokal handi bat dago prest, sukalde eta terrazarekin. Martxan jartzeko baldintza guztiak dituen arren, Udal Gobernuak ez du zerbitzu hau lizitatu oraindik. Zertarako prestatu lokal hau eta diru publikoa inbertitu, gero martxan jarriko ez badute?

*También proponemos crear una plataforma online para la compra de entradas sin pagar la comisión extra al banco*

Horrez gain, EH Bilduk beste bi mozio aurkeztu ditu Muxikebarrirekin lotuta. Alde batetik, online plataforma bat sortzea sarrerak erosteko, bankuaren komisio gehigarria aurrezteko. Bestetik, ikusita Kirol Portuko zineak ixtear daudela, egunero zinea eskaintzea. Bi proposamenen kontra bozkatu dute EAJk eta PSEk, inolako alternatibarik aurkeztu gabe.

## El local hostelero de Muxikebarri sigue vacío y sin uso

Han pasado más de 5 años desde la inauguración de Muxikebarri, y desde EH Bildu seguimos observando varias deficiencias y carencias en la gestión del centro. En el segundo piso, por ejemplo, contamos con un amplio local destinado a albergar usos hosteleros, con una cocina equipada, terraza, etc. A pesar de que está listo para su puesta en marcha, el Equipo de Gobierno sigue sin sacar a licitación este servicio. ¿Para qué habilitaron este espacio y gastaron dinero público, si luego no tenían pensado ponerlo en marcha?

Además, desde EH Bildu hemos presentado otras dos mociones relacionadas con Muxikebarri. Por un lado, crear una plataforma online para la compra de entradas (y eliminar la comisión extra del banco), al igual que en municipios como Sopela. Por otro lado, ofrecer de forma diaria cine, teniendo en cuenta que está en riesgo la continuidad de los cines del Puerto Deportiva. Ambas propuestas han sido rechazadas por PNV y PSE, sin presentar alternativas.




**EH Bilduk 50 emendakin baino gehiago aurkeztu dizkio Getxoko Udaleko 2025eko aurrekontuei. Bigarren urtez, zoritxarrez, EAJk eta PSEk erabaki dute kontuak PPrekin adostea, eta EH Bilduren proposamen guztien kontra bozkatu zuten. Hemen jaso ditugu aurkeztutako batzuk:**

**EH Bildu ha presentado más de 50 enmiendas a los presupuestos de este año del Ayuntamiento de Getxo. Lamentablemente, por segundo año consecutivo PNV y PSE han preferido pactar las cuentas con el PP, y rechazaron todas nuestras propuestas. Aquí hemos recogido algunas de ellas:**

## ETXEBIZITZA
## VIVIENDA

Gure lehentasun nagusietakoa etxebizitza eskubidea izan da. Egoera larria da gure herrian eta neurriak hartu behar ditugu: etxebizitza hutsak mobilizatu, udal lurrik ez saldu eta etxebizitza sozialetara bideratu, alokairu sozialari lehentasuna eman...

Una de nuestras prioridades ha sido el acceso a una vivienda digna. Ante la grave situación que vivimos en nuestro pueblo, hemos planteado varias medidas: movilizar las viviendas vacías, no vender terreno municipal y dirigirlo a viviendas sociales, priorizar el alquiler social...

## MUGIKORTASUNA
## MOVILIDAD Y TRANSPORTE

Hainbat hobekuntza proposatu ditugu herriko kale ugaritan: Sarrikobaso, Kasune, Algortako etorbidea, Zientoetxe, Andrés Cortina... *Getxobusa*rekin presioa egiten jarraitzen dugun bitartean, auzo-taxi zerbitzua ere martxan jartzea eskatu dugu.

Hemos propuesto mejoras en varias calles del pueblo: Sarrikobaso, Kasune, Algortako etorbidea, Zientoetxe, Andrés Cortina... Mientras seguimos presionando con el Getxobusa, también hemos propuesto que se ponga en marcha el servicio de auzo-taxi.

## AUZOAK ETA PARKEAK
### BARRIOS Y PARQUES

Herriko auzo guztietan proposamenak aurkeztu ditugu: eguneko zentroa Areetan, herritarren informaziorako bulegoak Andra Marin eta Zubiletan... Hainbat parke ere hobetzea proposatu dugu: Arkotxa, Arrigunaga, Santa Ana, Ortzadar, Zubileta...

Hemos propuesto mejoras en todos los barrios: un centro de día en Areeta, oficinas de atención ciudadana en Andra Mari y Zubileta... También proponemos la renovación de los parques infantiles de Arkotxa, Arrigunaga, Santa Ana, Ortzadar, Zubileta...

## KULTURA ETA KIROLA
### CULTURA Y DEPORTE

Gure proposamenak: Andra Mari kiroldegia eraberritzea, Errotatxun rokodromoa eta Getxo Abentura gunea; Fadurako udako igerilekuetan aterpea ezartzea; liburutegi nagusi berri bat; frontoi berri baterako azterketa; pump-track gunea...

En cultura y deporte planteamos renovar el polideportivo de Andra Mari; crear el centro Getxo Abentura en Errotatxu, incluyendo un rocódromo; cubierta en las piscinas de verano de Fadura; nueva biblioteca central; estudio para crear un nuevo frontón; pump-track...

## UDAL KUDEAKETA
### GESTIONES MUNICIPALES

Udalaren eraginkortasuna eta funtzionamendua hobetzea ere bilatu dugu: etxez etxeko zerbitzua modu zuzenean kudeatzea, hirigintza arloan ikuskaritza egitea, politikarien soldatak jaistea, bigarren berdintasun teknikari bat kontratatzea...

Otras propuestas han estado dirigidas a mejorar el funcionamiento y la efectividad del Ayuntamiento: auditoría del área de urbanismo, gestión directa del servicio de atención domiciliaria, contratación de una segunda técnica de igualdad, bajada de sueldos de políticos...

Proposamen guztiak irakurtzeko:
**getxo.ehbildu.eus**

## DIRU-LAGUNTZAK
### SUBVENCIONES

Azkenik, EH Bilduk ere proposatu du kultur, kirol eta gainontzeko elkarteen diru-laguntzak % 10 igotzea eta Palestinarentzat laguntza humanitarioa bideratzea.

Por último, EH Bildu también ha propuesto aumentar las subvenciones de los grupos culturales, deportivos y sociales del pueblo un 10% y destinar ayuda humanitaria a Palestina.

*Palestinaren kontrako genozidioa salatzen jarraituko dugu*







# Aldapa auzoko kableak lurperatu orain!

Aldapako auzokideek urteak daramatzate eskatzen auzoan dituzten kable eta poste elektrikoak lurperatzeko. Herriko beste leku batzuetan aspaldi lurperatu zituzten, baina Aldapan oraindik ere zutabe erraldoiak dituzte errepidearen bazterrean, horrek sortzen duen arriskuarekin. EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen abenduan eta onartua izan zen, beraz, espero dugu lehenbailehen egitea.

## Aprobada una moción de EH Bildu para soterrar el cableado y los postes eléctricos de Aldapa

Vecinos y vecinas de la zona de Aldapa llevan años exigiendo que se soterre el cableado y los postes eléctricos del barrio. Mientras en otras zonas del pueblo se soterraron hace tiempo, en Aldapa todavía contamos con enormes postes en el borde de la carretera, con el riesgo que ello supone. EH Bildu presentó una moción en diciembre y fue aprobada, por lo que esperamos que se realice lo antes posible.

# Arrapalak martxan, noizko?




Bidezabal eta Salsiduko arrapalak Udalaren kudeaketaren islada «bikaina» dira. Bidezabaleko kasuan, urtebete baino gehiago daramatzate geldi, eta, gainera, Getxobusak oraindik martxan jarri barik jarraitzen du. Presioa egiten jarraituko dugu.

## ¿Para cuándo las rampas en marcha?

Las rampas de Bidezabal y de Salsidu son «buen» reflejo de la dejadez del Ayuntamiento con el mantenimiento de los barrios. Más de un año con las rampas estropeadas en el caso de Bidezabal, mientras el *Getxobusa* sigue sin ponerse en marcha. Seguiremos presionando.

# Kezka Artatza inguruan tunel subflubialagatik

Tunel subflubialaren proiektuak kezka eta ezinegona sortzen jarraitzen du Artatza eta Antiguo Golf inguruko auzokideen artean. Foru Aldundiak berak aitortzen du azpiegitura honek trafikoa % 33 igo dezakeela, horrek dakarren kutsadura eta zaratarekin. Gainera, proiektuak kalte larriak sortuko lizkioke Artatza parkeari, eta Artaza-Romo Institutuari ere eragingo lioke.
Tunelak 600 milioi euro baino gehiagoko kostua izango du; kopuru hori, noski, beste behar batzuetara bideratu zitekeen, besteak beste, garraio publikoa hobetzea, hezkuntza publikoa edota osasungintza. EH Bildurentzat ez dago zalantzarik: bestelako lehentasunak ditugu, are gehiago kontuan hartuta larrialdi klimatikoaren testuinguruan bizi garela.

**Subflubiala ez!**

## Preocupación en Artatza por el túnel subfluvial

El proyecto para realizar un túnel subfluvial entre la rotonda de Artatza y Ballonti sigue generando preocupación entre los vecinos y vecinas de la zona de Artatza y el Antiguo Golf. La propia Diputación reconoce que esta infraestructura aumentaría el tráfico un 33%, con el incremento del ruido y la contaminación que ello supone. Además, el proyecto también afectaría severamente al parque de Artatza, una de las principales zonas verdes del entorno, así como al patio del Instituto Artaza-Romo.
Y todo ello con un despilfarro superior a los 600 millones de euros, que se dejarán de invertir en otras necesidades como la mejora del transporte público, educación o sanidad. Desde EH Bildu creemos que tenemos otras prioridades, más aún en un contexto de emergencia climática como el que vivimos.

**Subflubiala ez!**






**Inaugurazioa**
**Otsailak 14 febrero**
**19:00**
Musika,
pintxoak...

# Getxoko Bilgune berria Basagoiti etorbidean!

**Urte berriarekin batera Bilgune berria ireki dugu Getxon! Algortako Basagoiti etorbideko 67. zenbakian topatuko gaituzu aurrerantzean. Ekarpen edo proposamenik baduzu, ez izan zalantzarik eta etorri Bilgunera!**

¡Arrancamos el año con nuevo Bilgune en Getxo! En adelante nos encontrarás en el número 67 de la Avenida Basagoiti de Algorta. Si tienes alguna aportación o propuesta, no lo dudes y ven al Bilgune, ¡te esperamos!

**ehbildu**

getxo@ehbildu.eus
665 732 491
ehbildugetxo.bsky.social
@ehbildugetxo
Getxoko.EHBildu
**getxo.ehbildu.eus**